

AMERIKAKO PANPETAN

*Euskal-erriko lur maite artan
jayo nintzan baserriyan,
itzal aundiko inchair arbol bat
dago gure atariyan:
aren ondotik irten da noiz nai
maldako gaztañariyan,
edo, sagarrik onenak jaten
luberriko sagastiyan,
arbol tartian bizitu nintzan
gazte denbora guztiyan.*

*Denak utzi ta etorri nintzan,
¡lur au ikusi nai nuan!
aritz tantayak, pago lerdanak,
¡nola ez izan goguan!
oraiñ arzantzan Ameriketan,
arrancho baten onduan,
eguna pasa larrian eta
jirutzen naizen orduan,
nere begiyak gozaten dira
aldameneko onbu-an.*

*Ainbesteraño tristetutzen naiz
eremu zabal oyetan,
arbolak, mendi eta arrekak
falta diran zelayetan,
non etorri eta eseritzean*

*onbu-tzar onen zañetan,
edo igo ta osto tartian
bere adar bikañetan
jene! ¡amacho! Nik nola esan
zenbat gozatuzen detan!*

*Chabol ondoko onbu laztana,
maitatzen zaitut gogotik
eta biyotza erdibitzen zait
joatian zure ondotik,
nere burura ekartzen dezun
oraimen gozuagatik.
Zure ichura nai det ikusi
ez dizut eskatzen frutik
ni emen bizi naizen artian
jarren! jeron zaite zutik!*

*Nere lagunik maitatuena
onbu laztana, zu zera,
argatik nator zure kolkora,
ni malkuak isurtzera,
iduriturik naramazula
atariko inchairpera.....
beti izango zaitut goguan
bañan joan nai det osteran,
Euskal-lurreko arbolpe artan
nere ezurak uztera.*

PEDRO M. OTAÑO